

Berriz ere zuekin on Jose Maria Arizmendiarieta zenaren heriotzaren 42 urte betetzen diren azaro honetan. Bere filosofia zuei gogorarazteko asmoz, berarentzat hain garrantzizkoa zen LANA balioa aukeratu dugu berriz. Aukeratu dugun lehen pentsamenduan ikus daiteke zer esaten zigun.

LANA, garapenaren eta sustapenaren oinarri irmoa da. Batasuna, denon indarrak multiplikatzen dituen palanka da. Lankidetzeta, elkartasun erregimen bat da guretzat, LANA, sustapen pertsonalerako eta kolektiborako tresna egoki bihur dadin. 445p

Iraultzari, gaur egun, parte hartzea deitzen zaio. 362p

Hasteko, enpresa gestioa gizarteratu beharraz kontzientzia hartu behar dugu eta, hori gauzatzeko, egitura nahiz helburu berrieekin bideratu behar dugu. 467p

Etorkizuna lan egiten eta lana goratzen dakitenentzat da. 279p

Gizarte batek giza handitasunaren garapena seriozki planifikatuko badu, ardura eta kalitate handieneko lanpostuak hartzeko gaitasuna izango duten gizakiz osatutako plantilla bat eduki beharko du, eta, hori hala, gizaki horiek ez dute ez norbanako gisa, ez familia gisa, gainerako herritarrak baino goragoko maila batean bizitzea exijituko. 468p

Bikote ona osatu behar dute: bere agintepeko gizakiak sustatzen tematutako zuzendaritzak eta gestore horiei sinesgarritasun handia ematen dien komunitateak. 470p

Gaitasuna daukaten mendekoez, azkenean, baztertu egiten dituzte gaitasunik gabeko agintariak. 474p

Enpresak ezin du eraginkortasun birtualtasunik galdu, eta ez du galdu behar, enpresan bertan giza balioek baliabide ekonomiko edo material hutsen gainean erabateko lehenetsua izateagatik; hori dela-eta, hain zuzen, nabarmendu egin behar ditu eraginkortasuna eta kalitatea. 466p

Dena hobetu daiteke eta arrazoiak nagusi izan behar du pizgarri bidez prestuki eman den lana antolatzeko orduan. 387p

Norbanakoaren eskubideak bezainbeste edo gehiago zaindu behar dira eskubide komunitarioak. 337p

Beharrezkoa da hobetzea, ezinbestekoa da erakundean bertan zein etorkizunari begirako proiektioan eta konpromisoetan hainbeste gustatzen ez zaizkigunak eraldatzeko borroka egitea. 244p

Gaur egun lan munduan ideia multzo garbi eta positiborik gabe sartzen den gaztea bere bizitza erlijiosoko naufragoa da edo koldarra eta langileen mugimenduaren traidorea. 197p

Gaur egun, gure arazoa ez da lana saihesteko egoeran jartzea, baizik eta lana zerbitzu eta, ahal dela, atsegin onesten iturri bilakatzea. Lana humanizatu egin daiteke eta humanizatu egin behar da. 291p